

### Torresoroa



2008ko urriaren 13an inauguratu zen ofizialki Torresoroa eraikina. Bertan osasun eta gizarte zerbitzuez gain, kultura zerbitzuak ere eskaintzen dira. Lehenengo erabilera gizarte zerbitzuena izan zen, bertan baitaude kokatuta eguneko zentroa, babespeko etxebizitzak eta jubilatuen egoitza. Gabon aurretxoan hasi zen liburutegi berria martxan, eta azkenik 2009ko martxoaren 15ean inauguratu da areto multifuntzionala. Osakidetzako anbulategia ere bertan kokatuko da.

#### 1. LIBURUTEGIA

Entziklopediak liburutegian bertan kontsultatzeko.

##### **Etxera eramateko:**

- Liburuak
- Aldizkariak
- Bideo eta DVDak

##### **Etxean edukitzeko epeak:**

- Liburuak: 2 aste
- Bideoak eta DVDak: astebete
- Aldizkariak: astebete

**Buzoia:** Kanpoan, sarrera nagusiaren ezkerreko aldean, buzoi bat dago. Liburutegia itxita dagoenean ere etxera eraman den materiala entregatzeko aukera ematen du.

#### EKINTZAK

1. Ipuin kontalariak
2. Irakurketa bultzatzeko ekintzak: idazleak, tailerrak...
3. Patxiko Txerren ipuingintza

### NON GAUDE

Torresoroa □ Sagasti auzoa z.g.□

Tfnoa: 943 76 60 65

e-maila: [liburutegia@antzuola.com](mailto:liburutegia@antzuola.com)

### ORDUTEGIA

Neguko ordutegia:

**Astelehenetik ostegunera: 10:00-12:30 eta 16:45-19:30**□

**Ostiraletan: 10:00-12:30 eta 16:45-19:00**

Udako ordutegia (ekainaren 20tik- irailaren 15era):

**Goizetan: 11:00-14:00**

[www.kulturaondarea.org](http://www.kulturaondarea.org)

Antzuolako liburutegian dauden liburuak kontsultatu nahi badituzu, "Eskuragarri dauden azpikatalogoak: katalogo kolektiboa" jartzen duen menuan, Antzuola / U.L aukeratu beharko duzu.

## 2. ARETO MULTIFUNTZIONALA

2009ko martxoaren 15ean inauguratu zen herriko txistulariek eta abesbatzak eskainitako kontzertuarekin.

**Eskenatokia:** 11 x 7. Erabilgarria: 10 X 6

**Aforoa:** 182 lagunendako jarlekuak.

### OLARAN

Herriko plaza, 3.

Elizaren atze aldean, eskolaren eta pilotalekuaren erdian, herri erdi-erdian kokatzen da. Orain etxe hau dagoen tokian Etxeandia edo Galarditorre egon zen, XVI. mendean eraiki zenetik, XX. mende hasiera arte.

Urte askoan hutsik egon ondoren, zaharberrituta 2002ko otsailean inauguratu zen.

Gaur egun zerbitzu desberdinak eskaintzen ditu; laburbilduz esan daiteke batetik herriko kultur gune dela, eta, bestetik, Debagoieneko Mankomunitateak kudeatzen duen enpresa ekintzetako ekimeneen gunea hartzen du.

### BEHE SOLAIRUA:

#### **EKINTZA ARETOA:**

**Azalera:** 64.35.

**Eskenatokiaren neurria:** 6 plataformak osatzen dute; bakoitzak 2 m x 1 m du, eta mugikorrek direnez, era askotara ipintzeko aukera ematen dute. Gehienetan 4 m X 3 m erara ipinita egoten da.

**Eskenatokiaren altura:** aukera desberdinak ditu 15 cm- 40 cm- 60 cm- 80 cm- 100 cm

**Argindarra:** 7040 watio

#### **ERAKUSKETA ARETOA:**

**Azalera:** 82.92. **Altura:** 3.25

### LEHEN, BIGARREN ETA HIRUGARREN SOLAIRUA:

Herriko ekimen desberdinak gauzatzen dira: helduen heziketako ikastaroak, eskulanak, herriko talde eta elkarten bulegoak, bilera gelak, epaitegia...

Herriko taldeen erabilerarako lokal eskaria egiteko: [kultura@antzuola.net](mailto:kultura@antzuola.net)